

2016/11/22an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 22/11/2016.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Nestor Arana Arexolaleiba
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2016ko azaroaren 22an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 22 de noviembre de 2016, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2016-09-27 eta 2016-10-18.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2016ko azaroaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondoren, berariaz jakinarazi dira 14. eta 15. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiak.

Azkenik, bertaratutako guztiei jakinarazi zaie Alkatea deklaratzera deitu dutela Bergarako Epaitegira datorren azaroaren 29an. Deklarazioa Alberto Cortabarra Guardek Jose Aranaren kontu liburuei buruz Udalari eskatutako dokumentazioa dela-eta jarritako salaketarengatik da.

3.- “ETXEBIZITZA HUTSAREN-BIZIGUNE” PROGRAMAREN KUDEAKETA SURADESARI EMATEKO ERABAKIA.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak eta Udal honek “Etxebizitza hutsaren-BIZIGUNE programa”ren kudeaketa Eskoriatzan sustatu eta hobetzeko lankidetzaren protokoloa sinatu zuten 2014ko martxoaren 8an.

Lankidetzaren protokolo horren arabera, Eskoriatzako Udalak ondorengo konpromisoak hartu zituen:

a) BIZIGUNE .../...“Etxebizitza Hutsaren- Programa” kudeatzeko udal-tresna sortu eta finantzatu du. Bizigune “Etxebizitza Hutsaren Programa” kudeatzeko udal-tresna horren eginkizunak hauek izango dira:

- *Programari buruz informazioa eskatzen duten pertsonen informatzea.*
- *Eskoriatzako udalerrian kokatutako etxebizitza hutsen onarpen-prozedurak jabeekin egindako elkarrizketa batekin hastea.*
- *Etxebizitzak esleipendunei behin-behineko esleipen-fasean erakustea.*
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoen lurralde arduradunarekin etengabeko koordinazioari eustea, jadanik hasita dauden onarpen prozesuen datu guztiak, ukapenak eta esleipenak horri igorrita.*

b) Aipatutako kudeaketa tresnarako teknikariak eta beharrezko laguntza administratiboa izendatzea eta atxikitzea udal langileen artetik.

c) Publizitate kanpainak finantzatzea.

d) BIZIGUNE programa kudeatzeko udal zerbitzuen koordinazioa sustatzea eta erraztea herritarrei arreta egokia eskaintzen zaiela bermatzeko.

e) VISESAri eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari herrian dauden etxebizitza hutsei eta horien titularrei buruz Udalak dituen datu guztiak ematea.

Bere garaian udal plantillako langileei izendatu beharreko funtzioak SURADESAK egin izan ditu eta egiten ditu.

Eskoriatzako Udalak ez du zerbitzua bete-betean eta modu eraginkorrean emateko beharrezko baliabiderik, eta beraz, interesa du, orain arte bezain egoki emateko zerbitzua, aurrerantzean ere SURADESAK jarraitu dezan BIZIGUNE Etxebizitza Hutsaren Programa kudeatzen Eskoriatzan.

Hala ere, egiaztatu ahal izan da, ez dagoela kudeaketa mandatua formalizatzen eta arautzen duen inolako hitzarmenik.

2016ko urriaren 14ko Alkate erabakiz SURADESARI ESKATU ZITZAION berariaz onar zezala BIZIGUNE Etxebizitza Hutsaren Programaren kudeaketa Eskoriatzan, eta kudeaketa hori egiteko baldintzak proposa zitzala.

SURADESAK, urriaren 18an egindako administrazio kontseiluan, kudeaketa mandatua onartu eta programa horren kudeaketa onartzeko baldintzak finkatu zituen.

Baldintza horiek ikusi eta aztertuta, ez dute inolako aldaketarik suposatzen gaur egun daudenekiko.

Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 11. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 24.6 artikuluan ezarritakoa kontuan hartu dira.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- BIZIGUNE Etxebizitza Hutsaren Programaren kudeaketa SURADESAri, kapital osoa publikoa duen merkataritza-sozietateari, ematea 4 urterako Arrasateko Udalarekin hitzartutako baldintzetan, honen eranskinean jasotzen direnak (ondorioz, Arrasateko Udalarari egiten zaizkion aipamen guztiak Eskoriatzako Udalarari eginda bezala ulertuko da).

BIGARRENA.- Ahalmena ematea Alkateari erabaki hau gauzatzeko beharrezko dokumentu guztiak sinatzeko.

4.- E-GOITEK S.L. ENPRESAK FIANZA ITZULTZEKO EGINDAKO ESKAERA.

E-GOITEK S.L. enpresak fidantza eskudirutan jarri zuen 2014ko ekainaren 20an. Fidantza hori Udalbatzarrak, 2014ko ekainaren 24an hartutako erabakiz, hainbat kirol zerbitzu emateko esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko zuen berme gisa jarri zen.

Kontratuaren indarraldia amaituta, jarritako fidantza itzultzeko eskatu du E-GOITEK enpresak.

Zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena ikusita eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- E-GOITEK S.L. enpresari berme bezala jarritako 1.200 euro ITZULTZEA. Diru hori udal kirol instalazioetan hainbat kirol zerbitzu emateko kontratutik sortutako betebeharrak beteko zirela berme bezala jarri zen.

5.- EIOZ-EN HOBARIA EGITEKO JOSE ARANA FUNDAZIOA PATRONATUAK EGINDAKO ESKAERA.

2016ko irailaren 22ko Alkate erabakiz, hirigintza lizentzia eman zitzaion JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIOARI ondorengo obrak egiteko: Gaztañadui kaleko 24. zenbakian dagoen Jose Arana zaharren egoitzako beheko solairua zaharberritzea Luis M^a Alberdi Agirre arkitekto tekniko jaunak egindako eta 2016/08/22an ikus-onetsitako proiektuaren arabera.

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 307,07 € eta 4.952,80 € hurrenez hurren.

2016ko urriaren 10ean, EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arazten duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu da.

Kontuan izanik egindako obrek interes handia dutela Udalarentzat, beharrezkoak eta nahitaezkoak direlako eraikina hirugarren adinekoen egoitzarako erabiltzen jarraitu ahal izateko, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren

arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- GIZARTE INTERESEKOTZAT JOTZEA Jose Arana zaharren egoitzako beheko solairuan 2016ko irailaren 22ko Alkate erabakiz baimendutako zaharberritze obrak; eta ondorioz, EIOZetik sortutako kuotaren %95eko hobaria ematea.

6.- DIRU LAGUNTZEI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOARI ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2016ko otsailaren 23an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak hartu zituen:

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa.

Bigarrena.- Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez zenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2016ko otsailaren 23an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horren ERANSKINEKO 3. lerro estrategiko bezala gizarte ekintza aurreikusten da, eta 8. lerro estrategiko bezala, ekonomia eta gizarte garapena.

2016ko ekitaldiko aurrekontua onartuta, eta aurrekontu hori onartutako planera egokituta, 2016ko aurrekontuan diru laguntza izendun berri bi jasotzeko egokitasuna planteatu da, eta horrek indarrean dagoen diru laguntzen plan estrategikoa aldatzea eskatzen du.

Aurrez esandako guztiarengatik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak eta Garapen jasagarria batzorde informatzaileak egindako proposamenen arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Egungo 2016-2019 Diru laguntzen plan estrategikoa aldatzea ondorengo diru laguntza izendunak bertan jaso ahal izateko:

- **3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA**

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDURAKO ELKARTEA

HARTZAILEA: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDURAKO ELKARTEA

HELBURUA: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDUKO ELKARTEAK Atxorrotx egunean bakarrik ongintza edo gizarte helburuekin jartzen duen tabernak sortutako gastuak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Taberna jarduerarekin lortutako irabaziak handitzea, irabazi horiek ongintza helburuetarako erabiltzeko.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Zuzena-izenduna.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 700 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.21.01

- **8. LERRO ESTRATEGIKOA: EKONOMIA ETA GIZARTE GARAPENA**

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA

HARTZAILEA: Axtroki Merkatarari Elkartea

HELBURUA: Ondorengo jarduerak finantzatzea Eskoriatzako merkataritza indartzeko:

- Publizitatea jartzea Goienan.

- Establezimenduetan apaingarriak jartzea ageriko lekuetan.

LORTU GURA DENA:

Eskoriatzako merkataritza dinamizatu eta indartzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Zuzena-izenduna.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 2.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.431.50.01

Orain laburtuta jasotzen dira bozketaren aurretik udalbatzarkideek esandakoak:

Aitor Zubizarreta: AXTROKI merkatarien elkartearentzako diru laguntza dela-eta, aurreko egunean 2016rako alde biek hartzen zuten hainbat betebeharrak jasotzen zituen hitzarmen bat aurkeztu zitzaigun, eta hitzarmen hori azaroaren amaieran sinatu behar da. Uste dugu diru laguntza beharrezkoa dela, eta ez diogu eragozpenik jartzen, baina bai gauzak egiten ari diren moduari. Alde batetik, azaroaren amaieran sinatzen da; eta bestetik, Udalak konpromisoa hartzen du 2016. urtean hainbat jarduera egiteko Eskoriatzan merkataritzaren sustatzeko, eta elkarteak bere gain hartzen ditu beste jarduera batzuk. Programa bat gauzatzeko bi aldeek arteko hitzarmena da, baina, gero, 2016an egindako jarduerak ikusita, AXTROKI ez da batean ere agertzen. Uste dut aintzakotzat hartu ez delako izango dela. Gero, PERCOren kontu guztia dago, gai mamitsu eta garrantzitsua; uste dugu gai horretan ez litzatekeela ideologia politikorik egon behar, bakar-bakarrik helburu komuna: Eskoriatza bizi bat nahi dugu. Azken batean, uste dugu kontu hau bideratzeko modua ez dela zuzena, ez da bidezkoa 2016rako plan bat azaroan sinatzea. Elkarrekin lan egiten hastea eskatzen dugu, eta ez orain arte bezala, itxura batean ematen duenez besterik gabe "espedientea betetzera" mugatuz. Diru laguntza? noski baietz!, baina, beste modu batera landuta.

Maite Zubia: Zergatik planteatu den hain berandu? Arazoa ez da gurea izan, ez politikoa ez teknikaria, beraiek dira denbora asko behar izan dutenak proposamenak egiteko. Ekainean edo uztailean 2015eko diru laguntzaren bigarren zatia jasotzeko fakturak aurkeztu zituzten. Eta gaur da eguna, egin ditugun bilera guztien ondoren, ez dutena planteamendu zehatz eta behin betiko bat egin. Nik bezain ondo dakizue, batzorde informatzaile askotan komentatu delako, zer jarrera izan duten eta etengabe ibili behar izan garela beraien atzetik proposamenak aurkeztu zitzaizkien. Denon artean egin beharreko lanari dagokionez, erabat ados, baina, hitzarmena orain arte ez bada aurkeztu ez da izan gugatik.

Aitor Zubizarretak erantzun dio berak duen informazioa bestelakoa dela, eta horregatik esaten duela interesa duten guztiak egongo diren "lan mahai" bat sortzeko beharra dagoela.

Nestor Aranek esan du ez duela salaketarik izaterik nahi, baina, hitzarmen ikusita, irudi hori ematen duela. Beraiek nahi duten gauza bakarra lana elkarrekin eta urte hasieratik egin beharra dagoela adieraztea dela; eta gehituz, lana etorkizun ertain-luzerako estrategi batekin egin behar dela. Berriz ere esan du badakiela zer nolako zailtasunak dauden, eta horregatik eskatzen duela urte hasieratik lanean hastea, eta gutxienez, tartean hitzarmen bat badago, elkartearen logoa jartzeko hitzarmen honen babesean egiten diren jardueretan.

Alkateak: Aitorri "ideologiari" buruzko zerbait entzun diot, eta hori ez dugu inolaz ere onartzen. Gai honetan ez dago ideologiarik. AXTROKI elkarteari dagokionez, funtsezkoa da PERCOren gaia, gauzatzea kostatu zaigun gaia da, interes gehien izan behar zutenek lasaien ibili direnak izan direlako. Guretzat PERCOa garrantzitsua da, garrantzia du "hasiera puntu" bezala hartzen dugulako, dagoenaren erradiografia izango den "hasiera puntua" eta zer bide hartu aukeratzen lagunduko diguna. Eta hori guztiori Udalak Eskoriatzako merkatari eta ostalariekin izandako bilera batean azaldu zen, eta bilera horretara ostalari eta merkatari guztiak, elkarteeko kide izan edo ez, gonbidatu ziren. Bilera horren laburpen bezala bi ondorio atera zirela esan daiteke: bata, elkarteak elkarte bezala

indartzea behar duela; eta bestea, proiektu eta jarduerekin hasi beharra dagoela, eta horretarako beharrezkoa dela elkarrekin lan egitea. Elkarrekin egin beharreko lan horren emaitzetako bat aurrekontuan sartzeko proposatzen den diru laguntza da. Merkatariek eta ostalariek eskatu ziguten. Zer egingo duten 2.000 euro horiekin? Batzorde informatzailean aztertu beharreko kontua izango da. Ikusten duguna da elkarrekin egin beharreko lan hori momentu honetan bideratzeko modu bakarra diru laguntza horren bidez dela. Bilera horretan garbi gelditu zen beharrezkoa zela kontsumo giroa sustatzea herrian. Garbi ere gelditu zen beste kontu bat izan zen arazo handia dagoela, izan ere, dirudienez, antolatzen diren jarduerak gutxi batzuen mesederako dira batzuentzat: tabernen mesederako. Dendak eta beste komertzio batzuk kezu ziren beraiek ez zutelako inoiz onurarik jasotzen. Egoera hori kontuan izanik, lehenengo pintxo lehiaketa antolatu zen, eta baldintza bezala jarri zen erabilitako osagaiak hemengoak edo hemen, herrian, erositakoak izan behar zirela. Seguru PERCOa lantzen hasten garenean ideia gehiago sortuko direla eta 2017an proposamen gehiago izango direla. Bidea markatuta dago, batzordeak lan gogorra du, baina, garbi dago Udalak berak bakarrik eta merkatariek beraiek bakarrik ezingo dutela ezer lortu, elkarrekin egindako lana behar da. Eta uste dut kontu honetan inork ez duela dominarik jarri nahi.

Aitor Zubizarretak aurpergiratu dio berak ez duela ideologiari buruz ezer esan, esan duen bakarra izan dela gai honetan lana edozein ideologiaren gainetik egon behar dela, eta ideologiaren bat izatekotan, "Eskoriatzan erostea sustatu behar dela" izan beharko litzatekeela.

7.- 16. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 16. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 16. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU ALDAKETA ZKIA 16

APLIKAZIOA	IZENA	GEHITZEKO KOPURUA
0200.100.912.00.01	ZINEGOTZIA	1.786,68
0200.120.132.00.01	OINARRIZKO SOLDATA.UDALTZAINAK	769,01
0200.121.132.00.01	DESTINO SOLDATA UNDALTZAINAK	457,58
0200.121.132.00.02	ESPECIFICO.UDALTZAINAK	1.487,41
0200.120.151.00.01	OINARRIZKO SOLDATA.HIRIGINTZA	906,45
0200.121.151.00.01	DESTINO SOLDATA HIRIGINTZA	442,81
0200.121.151.00.02	ESPECIFICO HIRIGINTZA	993,21
0200.120.153.40.01	OINARRIZKOA OBRA-ZERBITZUAK	1.798,06
0200.121.153.40.01	DESTINO.OBRA ZERBITZUAK	1.100,55
0200.121.153.40.02	ESPECIFICO.OBRA ZERBITZUAK	3.286,63
0200.120.164.00.01	OINARRIZKO SOLDATA.KANPOSANTUA	43,05
0200.121.164.00.01	DESTINO.KANPOSANTUA	29,02
0200.121.164.00.02	ESPECIFICO.KANPOSANTUA	92,06
0200.120.230.00.01	OINARRIZKO GIZATE ONGIZATEA	398,61
0200.121.230.00.01	DESTINO.GIZATE ONGIZATEA	201,20
0200.121.230.00.02	ESPECIFICO.GIZATE ONGIZATEA	408,31
0200.120.326.10.01	OINARRIZKO SOLDATA.MUSIKA ESKOLA	57,24
0200.121.326.10.01	DESTINO.MUSIKA ESKOLA	24,78
0200.121.326.10.02	ESPECIFICO.MUSIKA ESKOLA	92,32
0200.120.330.00.01	OINARRIZKO SOLDATA. KULTURA	580,67
0200.121.330.00.01	DESTINO.KULTURA	301,84
0200.121.330.00.02	ESPECIFICO.KULTURA	811,20
0200.120.332.10.01	OINARRIZKO SOLDATA.LIBURUTEGIA	772,72
0200.121.332.10.01	DESTINO.LIBURUTEGIA	363,98
0200.121.332.10.02	ESPECIFICO.LIBURUTEGIA	764,86
0200.120.332.20.01	OINARRIZKO SOLDATA.ARTXIBOA	50,19
0200.121.332.20.01	DESTINO.ARTXIBOA	22,88
0200.121.332.20.02	ESPECIFICO.ARTXIBOA	52,77
0200.120.333.10.01	OINARRIZKO SOLDATA.KULTUR ETXEA	57,22
0200.121.333.10.01	DESTINO.KULTUR ETXEA	24,78
0200.121.333.10.02	ESPECIFICO.KULTUR ETXEA	92,32
0200.120.335.00.01	OINARRIZKO SOLDATA.EUSKERA	546,06
0200.121.335.00.01	DESTINO.EUSKARA	301,84
0200.121.335.00.02	ESPECIFICO.EUSKARA	582,40
0200.120.342.20.01	OINARRIZKO SOLDATA. KIROLDEGIA	668,11
0200.121.342.20.01	DESTINO.KIROLDEGIA	312,42
0200.121.342.20.02	ESPECIFICO KIROLDEGIA	996,28
0200.120.920.00.01	OINARRIZKO SOLDATA.ADMON OROKORRA	1.354,81
0200.121.920.00.01	DESTINO.ADMON OROKORRA	775,26
0200.121.920.00.02	ESPECIFICO.ADMON OROKORRA	1.854,16
0100.627.161.00.02	URESTATZE AHOAK.ELIZATEAK	44.500,00
	GUZTIRA	70.161,75

FINANZAZIOA		
0200.870.000.00.01	DIRU ZAINZAKO GERAKINA	70.161,75

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

8.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2016ko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

9.- IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK JARRITAKO ERAGOZPENAK 2016-KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN.

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2016ko uztailaren 1etik 2016ko irailaren 30era arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- *“Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako ERAGOZPEN-TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA, EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2016ko 5.a).

2.- MURUONDO GELLAO ELIZATEARI emandako diru laguntzaren kitapenari buruzko 780. erabakiari jarritako ERAGOZPEN-TXOSTENA.

(Ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den)

4.- TEPEZ ELKARTEARI emandako diru laguntzaren kitapenari jarritako ERAGOZPEN-TXOSTENA.

(Ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den)

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

10.- BIDE-ZORRA ERATZEKO ETA OLAZAR 14 HIE-KO ZORAUTZ BASERRIAREN LURZATI BAT BANANDU ETA LAGATZEKO BESTE ESKRITURA BAT ZUZENTZEKO ESKRITURA ONARTU ETA SINATZEA.

1999ko ekainaren 9an hitzarmen bat sinatu zen Zorautz baserriko jabeen eta Eskoriatzako Udalaren artean.

Hitzarmen horrek 14 "Olazar", 15 "Hilerria" eta 26 "Elorreta" Hirigintza Jarduerarako Eremuei eragiten zien antolamendu irizpide eta helburu orokorreari dagokienez, eta baita momentu horretan izapidetu behar zen "Eskoriatzako Planeamenduko Arau Subsarioren Berrikuspena" garatzeko eta exekutatzeko erregimenari ere.

Denbora pasatuta, eta "Eskoriatzako arau subsidiariotako OLAZAR 14 HIEko arau partikularraren lehenengo aldaketa puntuala" izeneko dokumentuaren izapidetzea zela-eta, ikusi ahal izan zen 1999ko hitzarmenean egin ziren lagapenen deskripzioak -Maria del Camino Lopez de Heredia San Julian notarioaren aurrean 2003ko abenduaren 5ean egindako eskriturakoak- ez zirela zuzenak, alde batetik, deskribapena ez zelako behar beste zehatza; eta, bestetik, ondoren interpretatu ahal izan denez, saihezbidea egiteko Foru Aldundiak desjabetutako lurak lagatzen zirelako.

Aurrez esandakoarengatik, komenigarritzat jotzen da egoera erregularizatzea, eta horretarako, bere garaian formalizatutako lagapen eskriturak zuzentzea. Egindako lagapenak hobeto eta indarrean dagoen planeamenduaren arabera deskribatu nahi dira eta honekin batera doan planoan jaso. Era berean, akatsak zuzentzeko eskritura publikoa Eskoriatzako Udalaren alde pertsona, makinaria eta ibilgailuentzat betirako bide-zorra eratzeko aprobetxatuko da.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Arrasateko notario Maria del Camino Lopez de Heredia San Julian andrearen aurrean 2003ko abenduaren 5ean, bere protokolo mila eta hogeita bost zenbakiarekin, emandako eskriturari jarraiki Eskoriatzako Udalari lagatako finkaren deskripzioa ondoren esango den moduan zuzentzea.

Oker deskribatuta dagoen, eta beraz, zuzendu eta ondo deskribatu beharreko finka honela jasota dago Bergarako 3. Jabetza Erregistroan: Eskoriatzako liburua: 106, Liburukia: 639, Orria: 134, Lursail zenb.: 5.972, 1. inskripzioa.

Zuzendu beharrekoa:

- Honako hau dioen lekuan:

HIRITARRA: Eskoriatzako herriaren espazio komun libre bezala HIE 14 "Olazar" barruan dagoen lur zerrenda, hiru metro zabal eta ehun eta hamar metro luze dena, saihezbidearekiko paralelo doana iparraldetik eta, baita iparraldetik ere, Bolibartik datorren errekarrekiko paralelo, baserriari erantsitako lurra inguratuz. 330 metro karratuko azalera du, eta honako mugak: iparraldetik, finkaren gainerako zatiarekin; hegoaldetik, saihezbidearekin; mendebaldetik, errekarrekin; eta ekialdetik, a) letrarekin banandutako finkarekin.

- Honako hau esan behar du:

Eskoriatzako herriaren espazio komun libre bezala HIE 14 "Olazar" barruan dagoen lur zerrenda, triangelu itxurakoa ipar-mendebaldean, antzinako trenbideko tunelaren parean dagoen plaza txikiarekiko paralelo, eta hiru metro zabalerako zerrenda hego eta hego-mendebaletik Bolibartik datorren errekarekiko paralelo. Guztira 330 metro karratu ditu, eta berriki egindako neurketaren arabera, 306,09 metro karratu. Honako mugak ditu: ekialdetik, Sorautz baserriko garapen baxuko egoitza-eraikuntza lurzatiarekin eta Eskoriatzako saihesbidearen lurrekin; mendebaldetik, Bolibar errekarekin eta antzinako trenbideko tunel aurrean dagoen plaza txikiarekin; iparraldetik, jabari publikoko lurrekin eta Sorautz baserriko garapen baxuko egoitza-eraikuntza lurzatiarekin; eta hegoaldetik, Bolibar errekarekin.

Bigarrena.- Aurreko puntuan deskribatutako Eskoriatzako Udalaren jabetzako finkaren alde, pertsona, makinaria eta ibilgailuentzat betirako bide-zorra eratzeko eskritura ONARTZEA eta SINATZEA. Bide-zor horri jarraiki, Eskoriatzako Udalak libre izango du bertatik igarotzea Elorretatik datorren eta lurzatiaren hegoaldetik gurutzatzen duen ur beltzen kolektorean mantentze-lanak eta konponketak egiteko. Lanak egin ondoren, lurzattia lanak egin aurretik zegoen moduan utzi beharko da.

Hirugarrena.- Jose Ramon Zubizarreta Alegria Alkate jaunari ahalmena ematea behar beste dokumentu publiko eta pribatu formalizatzeko Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkaritzan erabaki honetan aipatutako erabilera publikoko zortasuna eta erabilera publikorako lagapena erregistroan inskribatzeko.

11.- DENBORA-LIBREKO ORTUTARAKO LURZATIAK ESLEITZEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUEN AGIRIA ONARTZEA.

Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposamena egin du Torrebason dauden udal lurretako lurzatiak aisialdirako ortu bezala erabiltzeko doan lagatzeko prozesu berrirako deialdia egiteko. Lurzatiak Torrebaso I (Behekoa) moduan jasota daude inbentarioan.

Proposamena ikusita, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Torrebaso Behekoan dauden udal jabetzeko lurzatiak doan lagatzea zozketaz, aisialdirako ortuetarako erabili daitezzen.

Bigarrena.- Esleipen prozesua arautuko duen baldintza ekonomiko-administratiboen agiria onartzea.

12.- LARRIALDIETARAKO UDAL LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIETAKO 5. ARTIKULUA ALDATZEA: hasierako onarpena.

Bertaratutako guztiek ezagutzen dute Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamena.

5. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako egoitza aldia kentzea da egindako aldaketa, eta horrela,

- Honako hau dioen lekuan:

5. artikulua: Onuradunak.

2) Eskoriatzan erroldatuta egotea eta benetan biziitzea, gutxienez eskabidea aurkeztu baino 24 hilabete lehenagotik.

- Honako hau esatea:

5. artikulua: Onuradunak.

2) Eskoriatzan erroldatuta egotea eta benetan biziitzea.

Diktamena bozkatu da eta udal batzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI du:

Lehenengoa.- LARRIALDIETARAKO UDAL LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIETAKO 5. artikuluko 2. paragrafoaren aldaketa hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Aldaketa jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezazkion. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego aldaketa behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe.

13.- IXOTU GAZTE TALDEA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEA.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Eskoriatzan IXOTU gazte euskara elkartearen dinamizazioa TXIRIKILA aisialdi elkarteari esleitzea honako baldintzetan:

Iraupena: Zerbitzua 2016ko urritik 2017ko ekainera bitartean eskainiko da.

Prezioa eta ordainketa epeak: Zerbitzuaren prezio osoa 2.757,75 eurokoa izango da (Bez barne). Kontratatu den zerbitzuaren ordainketa, bi aurrekonturen kontura egitea, hau da zerbitzuaren %40a (919,25 €) 2016. urtean eta %60a (1.838,50 €), berriz, 2017. urtean. Zerbitzuen fakturazioa enpresarekin adostuko da, beti ere, zerbitzua bukatu ondoren bideratuko dena.

Txostenak: Proiektuari buruzko balorazio txostena aurkeztu beharko da 2016ko abenduan eta 2017ko ekainean.

Esleitzen den zerbitzuak barne biltzen dituenak:

- Astean 1,5 ordu presentzialeko dedikazioa izango duen hezitzailea, taldearekin zuzenean jarduteko.
- Hezitzaile horren prestakuntza orduak: asteroko saioak prestatzeko zein Aretxabaleta eta Arrasateko gainontzeko gazte taldeekin koordinatzeko.
- Hezitzailea eta koordinatzailearen arteko koordinazioa, astean ordubeteko.
- Ekintza berezietarako materiala eta hezitzaileak ekintza berezi hori prestatzeko behar dituen ordu estrak. (ekintza bereziak, ikasturtean, 2 izango dira)

Baldintza teknikoak: Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Topaguneak kontratatutako dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

BIGARRENA: 919,35 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzeko, hau da, 1.838,50 €, 2017. urteko aurrekontuaren kontu.

14.- SAHARARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA

Berlaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, ondorengo erakunde adierazpena onartu da:

Urriak 9an, igandea, Marokoko gobernuak okupatuta duen Mendebaldeko Saharako eremuan sartzeko aukera ukatu zion giza eskubideen behatzaileen euskal ordezkari bati. Euskal ordezkari hori kide hauek osatzen dute: Carlos Martín Beristain eta Gloria Guzmán jaun-andreek (Euskal Herriko Unibertsitateko

Hegoa-Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko kideak), eta Arantza Chacónek, Giza Eskubideen Behaketarako Nazioarteko Elkarteko kideak. Aaiunera egindako bisita ASVDH saharar biktimen elkartearen gonbidapenez egin zen; elkarreak duela hilabete batzuetatik hona marokoar agintarien baimena du funtzionatzeko. ASVDH elkarteak biktimentzako lehen jardunaldiak antolatzen ari da egunotan, baita bi txosten hauen aurkezpena ere: "Memoriaren Oasia", giza eskubideen urraketa buruzkoa, eta "Meheris: itxaropen posiblea", Hegoak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko talde batek, Francisco Etxeberria jaunarekin batera, aurkitutako bi hobi komunei buruzkoa. Hobietan 8 desagerrarazi zeuden.

Ikerketa-lana Saharako biktima eta erakundeekin partekatuzeko ekimen hau, hain zuzen, giza eskubideen alorreko edozein ikerketa-prozesuren parte bat da. Horrez gain, Euskal Fondoak lagundutako ikerketa-proiektu baten parte ere bada¹. Hori guztia kontuan hartuta, honako hau adierazten dugu:

- 1. Aurka egiten diogu giza eskubideen behatzaile eta ikertzaile ezagunek osatutako talde horri sarbidea ukatzeari. Sarbidea ukatzeak agerian uzten du ez dagoela biktimen eskubideak aitortzeko interesik eta zein zaila den haien lana bultzatu dezaketen pertsona eta erakundeekin harremanetan egotea. Ukapen hori, zuzenbidearen aurkakoa izateaz gainera, Saharako egoera hobetzeko beste oztopo bat da, kontuan hartuta zein den helburua: hain zuzen, giza eskubideen errespetua izan dadila gatazkaren irtenbide politikorako oinarria. Egin beharreko jardueran, besteak beste, kontu hauek aztertu nahi ziren: desagerrarazitako biktimen egoera eta pertsona guztiak desagerrarazpenen aurka babesteko Nazioarteko Hitzarmenaren 24. artikuluko 7. paragrafoa. Marokok sinatutako hitzarmen horretan honako hau adierazten da: "bermatu egingo zaie eskubidea dutela desagerrarazpenen inguruabarrak eta desagerrarazitakoen egoera ezartzen laguntzeko eta desagerrarazitako biktimei laguntzeko erakunde eta elkarreak askatasunez eratzeko eta*

1

horietan libreki parte hartzeko”.

- 2. Berriro ere adierazten dugu saharar herriarekiko elkartasuna, nazioarteko zuzenbideak eta Nazio Batuen hainbat eta hainbat ebazpenek babestutako aldarrikapenei dagokienez. Zehazki, egunero bitarteko baketsuen bidez egoera horren aurka borrokatzen diren saharar emakume aktibistekiko hurbiltasuna adierazi nahi dugu. Hain justu, haien egoera aztertu nahi zuen aipatutako behatzaile taldeak.*
- 3. Eskerrak eman nahi dizkiegu behatzaile taldeari eta taldeak Mendebaldeko Saharan giza eskubideen alde egiten duen lan eskuzabala babesten duten gizarte-erakundeei, zeregin hori justiziaren eta giza duintasunarekiko errespetuaren adierazpen gailena den aldetik.*
- 4. Horrenbestez, Marokoko Gobernuaren aurrean egin beharreko ekintza guztiei heltzeko eskatzen diegu Espainiako Gobernuari eta nazioarteko erakundeei, giza eskubideen eta lankidetzaren alorrean lan egiten duten erakunde nahiz elkarteek askatasunez bisitatu ahal izateko Mendebaldeko Sahara. Hori edozein herrialderen gutxieneko baldintza da; inor ezin da egon zuzenbidearen gainetik.*
- 5. Berresten dugu Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketa larriak ikertzeko proiektuarekin dugun konpromisoa. Hegoak –Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketen Institutuak– eta Aranzadi Zientzia Elkarteak garatua, proiektuari esker aurrerabide garrantzitsua egin da egia ezagutzeari, justizia sustatzeari eta biktimei ordaina emateari dagokienez.*

15.- ERAKUNDE ADIERAZPENA, AZAROAREN 25a: “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”.

Udalbatzarrak, aho batez, ondoren transkribatzen den erakunde adierazpena onartu du:

Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen emakumeen aurkako indarkeria ezabatze nazioarteko eguna, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien

aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko oinarriekin, 'Istanbuleko Hitzarmena' delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Bertan, estatuen ardurapeko eremu guztiak jorratzen dira: indarkeria prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea (batez ere gizonak eta haurrak), erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak hastea eta biktimekiko babesa, laguntza eta kalte-ordaina bermatzea, erabili daitezkeen bitartekoen bidez.

Istanbuleko Hitzarmena 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak, eta, hartara, arau guztiz loteslea bilakatu zen, erakunde zentral eta autonomikoetan zein tokiko erakundeetan. Hitzarmena funtsezko tresna dela uste dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko esparru gisa baliagarria da.

Horiek horrela, Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.

Hona hemen neurri zehatz batzuk:

- 1.- Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.*
- 2.- Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.*
- 3.- Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzea emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.*
- 4.- Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.*
- 5.- Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.*

- 6.- Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.
- 7.- Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.
- 8.- Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskabilen eskubideak.
- 9.- Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizaziorako ekintza soil gisa.
- 10.- Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta borrokatzen laguntzea sustatzea. Berdintasun politikak sustatuz eta eraso matxisten kontrako protokoloak indartuz edo martxan jarriz eta gizartearen erantzun soziala sustatuz.
- 11.- Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarriz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.
- 12.- Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.
- 13.- Gai honetan beharrezkoak diren neurrien finantzaketa bermatzeko mekanismo zehatzak ezartzea.

Bukatzeko Eskoriatzako Udalak bat egiten du azaroaren 25erako deituak izan diren mobilizazioekin eta jendarte osoari deia luzatzen dio parte har dezan.

Adierazpenaren edukiaren lotuta, Aitor Zubizarretak esan du, bere ustez, Udala adierazpenaren puntu guztiak betetzeko moduan dagoela, baina, horretarako, uste duela horiek kudeatzeko teknikari edo langile bat behar dela. Gehitu du "genero indarkeriarekin" lotutako guztiak beraientzat duen garrantziarengatik, beraien programan jasotzen zutela teknikari bat izateko beharra.

Josu Ezkurdiak erantzun dio proposamena aztertu eta baloratuko dutela, eta erantzungo dietela.

16.- ABENDUAREN 3-AN EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA, ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Udalbatzarrak, aho batez, ondoren transkribatzen den erakunde adierazpena onartu du:

Zer egin dezaket nik euskararen alde?

Euskararen Nazioarteko Eguna, 2016

Adierazpena

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean ainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurunejakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza moderna eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukeraberdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?"

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz

17.- GALDE-ESKEAK.

Aitor Zubizarretak, iraileko bilkuran egindako eskaera gogoratuz, galdetu du ea jasota dauden kiroldegiko erabiltzaileei buruz orduan eskatutako datuak. Esan du bi hilabete pasa direla, eta oraindik ez duela inolako informaziorik jaso.

Josu Ezkurdiak erantzun dio gaur egun jasota dauden datuak pasako dizkiola, baina, kontratazio berritik, aldaketak egin direnetik, 3-4 hilabete pasatuta zerbitzuaren balorazioa egin nahi dutela.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 27/09/2016 y 18/10/2016.

2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 16 de noviembre 2016 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones aprobatorias de los expedientes de modificación de créditos N.º 14 y N.º 15.

Por último, se pone en conocimiento de todos los presentes que el Alcalde ha sido citado a declarar al Juzgado de Bergara el próximo día 29 de noviembre. La citación es por la denuncia que le ha interpuesto Alberto Cortabarría Guardate con motivo de diversa documentación que solicitó al Ayuntamiento sobre los Libros de Cuentas de José Arana.

3.- ACUERDO PARA ENCOMENDAR LA GESTIÓN DEL PROGRAMA “VIVIENDA VACIA - BIZIGUNE” A SURADESA.

Con fecha 8 de marzo de 2004 el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco y este Ayuntamiento formalizaron un protocolo de colaboración para potenciar y mejorar en el municipio de Eskoriatza la gestión del “Programa de Vivienda Vacía- BIZIGUNE”.

En virtud de dicho protocolo de colaboración, el Ayuntamiento de Eskoriatza adquiriría los siguientes compromisos:

a) Crear y financiar un instrumento municipal de gestión del “Programa de Vivienda Vacía”, BIZIGUNE,/..... Las funciones de este instrumento municipal de gestión del “Programa de Vivienda Vacía”BIZIGUNE, serán:

- Informar a todas aquellas personas que soliciten información sobre el programa.*
- Iniciar los procedimientos de admisión de viviendas vacías situadas en el municipio de Eskoriatza mediante una entrevista con sus propietarios.*
- Mostrar las viviendas a sus adjudicatarios, durante la fase de adjudicación provisional.*

- *Mantener una coordinación permante con el responsable Territorial de Bizigune en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, incluyendo la remisión a éste de todos los datos sobre procesos de admisión iniciados, renunciaciones y adjudicaciones.*

b) Dotar y adscribir al citado instrumento de gestión con personal técnico y soporte administrativo necesario proveniente de us propio personal.

c) Financiar campañas publicitarias.

d) Promover y facilitar la coordinación de los servicios municipales de gestión del program ade BIZIGUNE a fin de garantizar una buena atención ciudadana.

e) Facilitar a VISESA y al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco todos los datos que disponga sobre viviendas vascías y las personas titulares de las misma en el municipio.

Las funciones que en su día debieran de haber sido asignadas al personal de plantilla del ayuntamiento vienen siendo desempeñadas por SURADESA.

El Ayuntamiento de Eskoriatza no dispone de los medios necesarios para poder prestar el servicio de forma plena y eficaz, por lo que es de su interés el que SURADESA siga gestionando el "Pograma de Vivienda Vacía -BIZIGUNE" en el municipio de Eskoriatza para seguir con la correcta prestación del servicio.

No obstante lo anterior, se ha constatado que no existe convenio alguno por el que se formalice y regule la encomienda de gestión.

